

# Aretxagazeta

Aretxabaleta • 1995eko azaroak 23 • 87.zka. •



Zinea eta kiroletxea urtarrilerako gertu

lurji Etxebarria, Kukubiltxoko partaidea

Kirolak: Jose San Migel

## Gregoriano korua



ARETXABALETAN, ZURE ORDUTEGIRA EGOKITZEN DEN  
GIDARI ESKOLA BARRIA:

# LARRINGAN



Informa zaitez  
konpromezurik gabe:



Basabe poligonoa F-0-7 • Tfnoa. 79 64 50

## Amaia-Berri, S.L

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor  
Teknologia

Otalora, 18 behea  
Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA



**KELER**

## FELIX ARRESE

Edari Banatzailea




El León

Industrialdean  
Tfnoa: 79 60 65

## ERREKABARREN MERCATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 79 75 42
- MARI KARMEN ZAPATA DENDA 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINKETA 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 79 96 43





# Zein musika mota gustatzen zaizu?

*Patxi Arriola  
(Jubilatua)*

*Euskal musika gustatzen zait niri. Trikitixa asko gustatzen zait, trikiti zaharra gehiago gainera.*



*Maribel Lorenzo  
(Langabetua)*

*Niri musika mota guztiak gustatzen zaizkit. Musika suabea entzutea asko gustatzen zait baina bakalaua ere bai.*



*Amelia Garcia  
(Etxekoandrea)*

*Denetik gustatzen zait. Gregorianoa ere bai eta baita musika bakalaua ere apur bat.*



*Joana Sanchez  
(Ikaslea)*

*Musika sebilanoa gustatzen zait eta Laura Pausini ere bai.*



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultur sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria



## ESKUTITZAK

### ARETXABALETA HORIZ MARGOTUA

*Alkate Jauna. Gaur egun Aretxabaletako inguru gehienak horiz margotiak aurkitzen dira eta autoa aparkatzeko leku aproposik ez dago. Eguerdietan, Durana kalean edota eliza inguruan eta beste hainbat lekutan, autoa aparkatzea ezinezkoa da zeren eta, dena horiz margotua dago. Beraz, batzutan kolore horia ezabatu edota bestalde, papel larrosekin (multa) aberastu behar zara.*

TRAKTOR AMARILLO


**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Iosu Urkia. **Erredakzio-kontseilua:** Marta Madinabeitia, Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantza Abasolo, Xabin Arriola. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Loramendi K.E., Udala, Mikel Arroiabe, Jon Axpe, Gorka Etxabe, M. J. Aretxaga. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378/94 Aretxagazeta ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

**Aretxagazeta**





# Zinea eta kiroldegia erabiltzeko hilabete lehenago baimena eskatu beharko da



Imanol Aizpuruak, kulturako zinegotziak eta Inma Migelek kultura teknikariak kultura alorrean zituzten asmoen barri eman zuten

Azaroaren 13an, prentsaurrekoa eman zuten Aretxabaletako kulturako zinegotzia den Imanol Aizpuru eta kulturako teknikaria den Inma Migelek.

Aurrera begira dituzten asmo eta kultura arloa zelan antolatu behar duten izan ziren jorratu zituzten gaiak.

Imanolen hitzetan, kultura herriak egin behar du eta hori herriko hainbat talderen bitartez aurrera eraman daiteke. *"Herriak berea den kultura sentitu behar du, kultura ez du udalak eman behar, herriak sortu baino. Udaletxearen eginbeharra infrastrukturen laguntzea da, talde desberdinei lokalak utziaz esaterako."* Momentu honetan bi talde dira herrian lokala errentan dutenak eta honek gastu handia dakar. Horregatik

kultura sailak bereak diren lokaletara pasa gura ditu bi talde hauek.

## Kontrol zehatzagoa

Hemendik aurrera, kultura alorrean egiten diren gastuen kontrol zehatzagoa eraman gura du Udalak. Kultura sailean sartzen diren talde desberdinek dirua non eta zertan gastatzen duten ikertuz. Egiten diren inbertsioak kulturalak izan beharko dira. Momentu honetan kultura sailak beregain dituen taldeak, Loramendi K. E., Aretxagazeta, Banda, Gaztetxea, Abesbatza, Ortzadar, Liburutegia, Okila taldea, e.a. dira.

Kultura mailan, herriko partizipazioa bultzatzea izango litzateke kultura sailak momentu honetan duen beste helburuetariko bat. Imanolek adierazitako berbetan,

partizipazio hau bi aldetik bultzatu beharko da. Alde batetik, talde desberdinak mugimenduan jarri beharko dira ekintza desberdinak antolatu ditzaten. Beste aldetik, herritarren partizipazioa bultzatu beharko da, herrian antolatzen diren ekintza kultural hoietera.

Herriko ekintzetan bi Kultura mota desberdindu behar direla ere adierazi zuen, *"kultura euskalduna eta atxabaltarrena sortu beharko da alde batetik, geurea propio duguna, eta kultura internazionala bestetik, banda, musika eskola, e.a"*.

## Zinea eta kiroletxea urtarrilerako gertu

Urtebete baino gehiago da herriko zinema, ziurtasun neurriak betetzen ez zituela eta itxi zutena. Kiroletxeaz ere bardin gertatu zen, eta honetan ere ezin izan da jaiialdirik, ekintzarik, e.a. antolatu. Orain, bai zinean eta baita kiroletxean ere egokitze lanak hasita daude. Abenduaren amaierarako bi edifizioetako lanak bukatuta egongo direla uste da eta beraien erabilerarako gertu. Urtarrilean beraz,

zinea asteroko pelikula emanaldiekin hasiko da.

Aipatutako edifizioetan, besteak beste ondorengo obrak egiten ari dira, suaren aurkako eta elektrizitateko instalakuntzak egokitu, 250 metrotako zirkunferentzian eragina duen tximistortratza jarri; erretzeko arriskua duten materialei suaren aurkako materiala eman eta garbiketa orokorra egin.

Obra hauek direla eta herritarrok ez dugu aldaketarik igarriko, lehengo moduan egongo da dena. Zineko obrek 9 milioitako aurrekontua dute eta kiroletxekoek barriz, 2,5 milioitakoa.

## Erabiltzeko baimena

Aldaketa hauekin zinea eta kiroletxea herritarren erabilerarako gertu egongo dira. Kultura sailak, nahiz eta beste sail batzuk edo eta herriko beste elkarte batzuk erabili ahal izango dute. Hori bai, aldeztu aurretik baimena eskatzea beharrezkoa izango da. Hemendik aurrera zinea eta kiroletxea erabiltzeko baimena ematea ez da Udalaren esku egongo Eusko Jaurlaritzako Joku eta Ikuskizun sailaren esku baino. Horregatik, bi lokal hauen erabilerarako hilabete aurretik baimena eskatuta egon beharko da, behar diren tramitazio guztiak ongi bideratu ahal izateko.



# Baimen barik jarritako antena



AIRTEL enpresak baimen barik jarri zuen telefono mobilerako antena Apotzaetxebarrin

Urria erdialdera, AIRTEL enpresak telefono mobilaren erabilerrarako 30 metro inguruko antena jarri zuen Apotzaetxebarri auzoan. AIRTEL enpresak tek-

nologia digitala erabiltzen du eta etorkizunera begira teknologia mota hau gomendatzen du.

**Telefonika eta AIRTEL**  
Espainiako Gober-

nuak bi enpresei eman die telefono mobilaren lizentzia. Alde batetik, telefonika dago, eta bestetik, AIRTEL enpresa. Telefono mobilak ondaka funtzionatzen du baina bi enpresa hauek erabiltzen duten teknologia desberdina da. Telefonikak teknologia analogikoa erabiltzen du eta AIRTEL enpresak barrez, digitala. Teknologia digitalak, telefono mobilaren bidez, datuen transmisioa egiteko aukera eskaintzen du, baita beste herrialde batzuetatik deiak egiteko eta jasotzeko aukera ematen, analogikoak barrez ez du aukera hau ematen.

Kable gabeko telefonoak beraz, bi aukera hauek eskaintzen ditu. Pertsona bakoitzaren esku egongo da zein linea aukeratu.

**Baimen gabe**  
Apotzaetxebarrin

jarritako antena Udaltxearen baimen gabe jarri zuen AIRTEL enpresak eta momentu honetan zigorra jartzeko prozedura zabalik dago. Udalak antena Murun jartzeko esan bazion ere, Apotzaetxebarrin leku egokiagoa dala eta bertan jarri zuten. AIRTEL enpresaren adierazpenetan, antena desberdinak ondo komunikatzeko moduan jarri behar dira, heritik gertu, eta hori izan zen hain zuzen ere antena Apotzaetxebarrin jartzeko arrazoiatariko bat.

## 20 antena Gipuzkoan

AIRTEL enpresak Gipuzkoa osora hedatu gura du telefono mobilaren sarea, horretarako Gipuzkoa osoan 20 antena jarriz. Gure inguruko herritan, Gatzagan, Eskoriatzan, Arrasaten, Oñatin eta Bergaran ere jartzeko asmoa dute.

**BEIRALAN**



**KRISTALDEGIA**

Loramendi 10 ☎ 79 81 78  
Aretxabaleta



Berrikuntzak

**MODAN  
DAGOEN  
GUZTIA**

Iparragirre, 4 Tfnoa. 79 21 24

**OSKAR  
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 79 98 74  
ARETXABALETA

**ARETXABALETAKO  
INDUSTRIALDEA**

**“ARINSA”**

Basabe Poligonoa “EO-10”  
Telefonia: 79 62 80  
ARETXABALETA  
(GIPUZKOA)

**MATIKUA  
Taberna**

Aozaratza auzoa  
☎ 79 16 68  
ARETXABALETA

**GARBITU S. KOOP**

**Garbiketa  
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 79 01 28



**MAPFRE**

Aseguroak  
Errekabarren, 3  
Tfnoa: 77 11 76



## Udazkeneko kirol ikastaroak

Deba Bailarako Euskara eta Kirol Zerbitzuak, kirola euskaraz programaren barruan hainbat kirol ikastaro antolatu ditu. Hoiien artean, oinarrizko prestakuntza fisikoa, bizkar hezurretako arazoak uretan tratatzeko proposamenei buruzkoa eta aretoan jolasten den futboleko monitore titulua lortzeko ikastaroa.

Oinarrizko prestakuntza fisikoko ikastaroari dagokionez, abenduaren 12, 14, 19, 21, 26 eta 28an Debako kultur Elkartean burutuko da.

Bizkar hezurreko arazoak uretan tratatzeko proposamenei buruzko ikastaroa abenduaren 16an emango da Eibarko Ipurua kiroldegian.

Areto futboleko monitore titulua lortzeko ikastaroari dagokionez, abenduaren 1, 2, 3, 15, 16 eta 17an izango da Elgoibarko Olaizola kirol-etxean.

Informazio zehatzagoa jasotzeko edo eta izena emateko, jo bailarako edozein kiroletxetara.

## Deba Garaiko Mankomunitateak herrien arteko I. olinpiada antolatu du



16 urtetik gorako neska-mutikoei zuzenduta dago

Deba Garaiko Mankomunitateko kirol zerbitzuak herrien arteko I. olinpiada antolatu du. Olinpiada honetan Deba Garaiko herriek parte hartu dezakete, hau da, Arrasate, Aretxabaleta, Oñati, Bergara, Elgeta, Eskoriatza eta Antzuola. Herri bakoitzetik talde kopuru batek parte hartu dezake, Aretxabaletako kasuan, bi taldek. Bi talde baino gehiago aurkeztuz gero herriz herri sailkapen fasea egingo litzateke.

Abenduaren 26tik 29ra bitartean aurrera eramango litzateke olin-

piada. Horrela, abenduaren 26an Oñatin futbitoia jokatuko da, 27an Eskoriatzan saskibaloia, 28an Bergaran eskubaloia eta 29an Arrasaten igeriketa.

Olinpiadan parte hartu gura dutenek, Deba Garaian bizi, 16 urtetik gor izan eta kuadrila, klub, elkarte, etab. etan antolatuta egon beharko dute.

Taldea gutxienez 8 eta gehienez 12 lagunek osatuko dute. Hori bai, kirol guztietan parte hartu beharko dute.

Izenematea, Aretxabaletako edo Deba Garaiko kiroletxetan egin daiteke, abenduaren 5a baino lehenago eta 3.000 pezeta ordainduz.

Sariak ondorengoak izango dira: trofeoa eta bidaiak txapeldunentzat; trofeoa eta kirol materiala bigarrenentzat eta trofeoa eta opariak hirugarren sailkatzen den taldearentzat.

Informazio gehiago gura izan ezker Deba Garaiko kiroletxe eta kirol zerbitzuetan izango duzue.



# LASAGABASTER

## Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE

TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55



## Liburutegiko liburu barrien zerrenda

### Liburua

### Idazlea

#### Literatura liburuak:

- |                               |                          |
|-------------------------------|--------------------------|
| • Africa lloira               | Alberto Vázquez-Figueroa |
| • El cuaderno rojo            | Paul Auster              |
| • La estatua de Adolfo Espejo | José Luis Sampedro       |
| • Manhattan                   | Edorta Jimenez           |
| • La piramide                 | Ismail Kadaré            |
| • Querido Corto Maltés        | Susana Fortes            |

#### Haur eta gazte literatura:

- |   |                                   |
|---|-----------------------------------|
| • Atrapa a ese gato                                   | Monika Beisner                    |
| • Un cuervo diferente                                 | Edith Schreiber Wicke; C. Holland |
| • Konrad o el niño que salió de una lata de conservas | Christine Nöstlinger              |
| • Oihaneko liburua                                    | Disney                            |
| • Patxiren itsasontzi pirata                          | Philippe Dupasquier               |
| • Todos los detectives se llaman Flanagan             | Andreu Martín/Jaume Ribera        |

#### Kontsulta liburuak:

- |   |                                  |
|---|----------------------------------|
| • Breve historia de Europa                        | Jean Carpentier; Francois Lebrun |
| • Cañadas Reales en bicicleta de Montana          | Miguel Angel Delgado Ruiz        |
| • Las claves del racismo contemporáneo            | María Angeles Montoya            |
| • Guía práctica de la pesca                       | Luciano Debarbieri               |
| • La historia de la humanidad contada por un gato | Gérard Vincent                   |
| • Papel maché                                     | Antonella Fontana                |



## Aretxabaletako bandak emanaldi bat eskainiko du abenduaren 3an

Abenduaren 3an Aretxabaletako bandaren musika doinua entzuteko aukera izango da Aretxabaletan. Goizeko 11,30etan hasita kalejira bat eskainiko du. Ondoren eguerdiko ordu 1etan kontzertua Durana kalean. Kontzertuan joko dituzten obrak ondorengoak dira:

El coloso parrita	G. Jimenez
Largo	Vivaldi
The Godfather	Nino Rota
La tierra	J.H. Stole
Xoxote	C. Bersitain
Deva	P. Sorozabal

Egun honetan Candido Beristain Azkoitiako musikariari omenaldia egingo zaio Aretxabaletako Bandari eman dion laguntzagatik.

**ITZIBER NIÑO**  
Lezama Merkatal Zentrua  
Tfnoa: 79 13 32

**Maritxu Mertzeria**  
Araba Ibilbidea, 24  
Tfnoa: 79 23 53  
ARETXABALETA

**LASA AGUILERA**  
Aholkularitza  
Andra Mari Auzunea,3  
☎ 79 29 26  
ARETXABALETA

**OSKAR**  
HARATEGIA  
Loramendi,1  
☎ 79 71 69






# ARETXABALETA UR AZPITAN

## ANIMALIA SINPLEAK



Orbitolina


Brioos



Espikulak


Korralinoak

## EKINODERMOAK



Ekinidoak

## MOLUSKOAK




Ammonite



Belemnite



Gasteropodo



Nautiloideoak

lurra itsas-mailatik gora igotzeaz gain Euskal Herriko mendi garrantzitsuenak ere altzatu ziren. Orduan eratu zen gaur ere oraindik bertan daukagun "ibai harroen dibisorioa", hau da, Kantauri itsasora doazen uren eta Mediterraneo aldera doazenen arteko banakaria. Dena dela, Catalunyan eratu ziren mendikaten erruz Euskadi hegoaldeko urek ezin zuten Mediterranean itsasoraino heldu, eta ondorioz Nafarroa eta Arabaren zati haundi bana laku erraldoi baten azpian geratu ziren.

Denboraren poderioz, higadurak (erosioak) ate bat zabaldu zuen inguru hartan

eta lakua poliki-poliki hustuz joan zen. Horrela, Miozeno Aroaren erdialderako (duela 15 m.u.) Euskal Herri gutzia uraren gainetik gelditu zitzaigun.

## Fosilak Kurtzebarriko kareharrietan

Kurtzebarriko kareharriak funtsean biomikritikoak dira, eta izenean nabari den bezala, fosilizatutako bizidunen edukin handia dute (%30-70). Arroka mota bakoitzean fosil hauek (ikus irudia) ageri zaizkigu:

**Arroka esparitikoetan:** Molusku eta ekinodermo zatiak dira nagusi, eta hauek baino urriago bada ere, brioos, espikula eta ostrakodoak ere baditugu.

**Arroka mikritikoetan:** Foramifero batzuk azaltzen dira (esate baterako orbitolinak). Hauetaz gain korralarioak ere badira.

**Zenozoikoan eraturiko hondo lohitsueta:** Hauetan hain ezagunak diren Ammonite (karakolak), Belemnite (Sepiak) eta Nautiloideoak (gaurko Nautilus-aren antzekoak) azaltzen dira.

✍ **Jon Axpe**  
**Mikel Arroiabe**

*Kurtzebarriko fosil itsastarrak*


Euskal Herria ez da beti orain ezagutzen dugun bezelakoa izan. Duela milioika urte ozeano haundi bat zabaltzen zen gure lurren gainean; hau dela eta, ugariak dira Kurtzebarriko aurkitutako aintzina animalia itsastarren fosilak.

## Euskal Herriaren historia geologikoa

Aipatu bezala, Triasiar Aroan (duela 220 milioi urte) orain Euskal Herria dena ozeano zabal baten azpian zegoen, Nafarroa iparraldeko zati batzuk izan ezik. Bestalde, Kontinente lehorra Asturias eta Gaztela aldean kokaturik genuen.

Baina Behe Kretaziarrean (duela 120 m.u.) kontinente honetatik zetozen ibaiek, sedimentu ugari zekartzatenez, delta haundi bat sortu zuen gure lurraldea itsas-mailatik sakonera txikira utziz. Kontutan izanik garai hartan klima tropikala zela nagusi, arrezife eta korralak berehala hedatu ziren Euskal Herri osoan zehar.

Eozenoan (duela 40 m.u.) Orogenia Pirenaikoa eman zen, eta orduan gure



**LOGOPEDIA  
ZENTRUA  
ARRASATE**

HIZKUNTZ-ARAZOAK


HIZKETA ARAZOAK

AHOTZ ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk  
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

**T  
X  
I  
L  
A  
R  
R  
A**



ELIKADURA  
BEREZIA

Durana, 35  
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9  
Tfnoa: 79 44 28  
ARETXABALETA



**FELIX  
PAGALDAY**

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak  
Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33  
Etxekoa: 79 42 56

ARGAZKI

*Urkiola*

Tfnoa: 79 39 20  
ARETXABALETA



# • Iurgi Etxebarria •

## Kukubiltxorekin antzerki munduan barrena

Nork ez du ezagutzen Kukubiltxo taldea? Umeek hain maite duten talde hori? Duela urte batzuk Oskorrirekin aritu ziren eta oso ezagunak bihurtu ziren Euskal Herri osoan. Geroztik ere antzerki berriak sortu dituzte, Jaiotza, esaterako eta beti berrikuntzekin agertu zaizkigu. Gure herrian ere bada, Kukubiltxoko panpin erraldoi hioen barruan gordetzen den mutil bat, 22 urte dituen Iurgi Etxebarria da berau.

### • Iurgi, nolatan antzerki munduan eta Kukubiltxo taldean?

Almenen ikasten ari nintzela antzerkia beste aukera batzuren artean ikusten nuen. Horrela, Almen bukatu nuenean, profesionalean hasi nintzen ikasten eta hura gustatzen ez zitzaidanez, antzerki eskolan apuntatu nintzen. Kukubiltxorekin barriz, orain dela 2 urte t'erdi hasi nintzen lanean. Kukubiltxoko partaide batek belauna apurtu zuen eta orduan neri deitu zidaten. Proba batzuk egin nituen eta horrela sartu nintzen taldean.

### • Espero zenuen horrelako talde batean sartuko zinela?

Egia esan ez, ez horren azkar eta Kukubiltxo moduko talde batean. Nire nahia hori bazen ere, oso urrun ikusten nuen.

### • Zelan entsaiatzen duzue?

Entsaioak egunero egiten ditugu, goizeko 10etan hasi eta 3rak artean. Gauza desberdinak egiten ditugu, koreografiak entsaiatu, tailerrak, panpinak egin edo antzerkirako materiala prestatu edo beste proiektu batzutan pentsatu.



Iurgi Etxebarria Kukubiltxo antzerki taldeko partaidea

### • Taldeari dagokionez, zein da Kukubiltxoko barne funtzionamendua?

Kukubiltxo enpresa bat da. Lau kooperatibista eta hiru kontratatu gara. Hoienean hiru neska eta lau mutil. Zuzendariak gidioa asmatzen du eta gero entsaiatzen hasten garenean aldaketak egiten ditugu eta obra moldatzen joaten gara.

### • Momentu honetan zelan ikusten duzu taldea?

Ondo ikusten dut. Gainera, jendeak ezagutu egiten gaitu. Oskorrirekin oso montaje polita egin genuen eta jendeak pertsonaiak ezagutu egiten ditu. Kukubiltxok orain artean izan dituen pertsonaiak bereziak izan dira, umeei gustatu egin zaizkie. Gainera, Kukubiltxok esperientzia haundia du. 1983. urtetik aurrera profesionala da taldea eta 19 montajezik gora egin ditu, hoienean 3 barnekoak eta beste guztiak kalekoak.

### • Antzerki bat prestatzerakoan non oinarritzen zarete?

Umeak dibertitzea da gure helburua eta hau edozein obra prestatzerakoan kontutan izan behar da. Antzerkia pedagogikoa bada ere askoz ere hobeto. Honez gain, gu geu, taldekideok egiten ari garenekin gustora egotea oso garrantzitsua da eta baita guk ondo pasatzea ere. Barneko titerekin beti euskera erabiltzen dugu.

### • Kanpo antzerkia bakarrik ez duzue egiten beraz.

Ez. Kukubiltxok kaleko antzerkiak eta barruko titereak ere egiten ditu, hau da ginola. Azken hauek, urriatik gabonetara bitartean egiten ditugu gehienbat eta kaleko antzerkiak urte osoan zehar.

### • Eta montajeak zenbatean behin aldatzen dituzue?

Bi urtean behin normalean. Gero eta gehiago aldatzea hobe. Montaje batek urtebetean ondo irauten du, bigarren urtean aldaketa nabaritzen da eta 3. urtean beste zeozer atera beharra dago.

### • Euskal Herri mailan bakarrik lan egiten duzue?


Ez, Euskal Herritik kanpo ere ibili izan gara. Leridan, Zaragozan pare bat aldiz, Galizian ere bai eta datorren uztailan Britainara joango gara.

### • Aurrera begira antzerki munduan jarraitzeko asmoa duzu?

Nik antzerkitik bizitzea gura dut. Badakit gogorra dela, denbora asko kentzen du eta hara eta hona ibili beharra dago. Baina benetan mundu hau gustatu ezkeru posible dela uste dut.



*“14 urtetan landutako haziak eman ditu azkenean fruituak”*, horrela adierazi digu Angel Barandiaran, Aretxabaleta Abesbatzeko zuzendariak. Ez da gutxiagorako gero, 1981. urtetik hona gregorianoa lantzen ixil-ixilean lanean aritu ondoren, merezitako saria jaso dute. Izan ere, gure herriko 18 lagunek Gregoriano diska garrantzitsua grabatu berri dute; laster entzun ahal izango dugun diska gainera, abendurako kalean egongo da eta.



Angel Barandiaran Aretxabaletako Abesbatzeko zuzendaria

## Angel Barandiaran: *“14 urtetan landutako haziak eman ditu azkenean bere fruituak”*

• **Aretxabaleta Abesbatzeko 18 lagunek Gregoriano disko baten grabaketan parte hartu duzue, noiz eta nola sortu zen ideia?**

Bai, ideia berria da, orain urtebete gutxi gora behera sortua. Orduan, Ismael Fernandez de la Cuesta Madrildarrak gugana eta Gasteizko beste abesbatza batetako hamabost lagunengana jo zuen. Ismaelek eskuartean Estatu Batuetako produktora batek zuzendutako gregoriano disko baten grabaketaren proiektua zeukan. Horrela, orain dela urte bete, azaroan hasi ginen lanean.

• **Beraz, Gasteizko talde batekin elkarlanean aritu zarete:**

Horrela da bai, ez da soilik gure lana izan. Ismaelek gurekin eta Antxon Lete Gasteizko zuzendariarekin bat egin zuen eta grabaketaren ideia proposatu zigun. Berak bultzatuta iazko azaroan hasi ginen lanean eta poliki poliki elkarlana sendotzen joan da.

Aurkezpena Aretxabaletan egin genuen eta Euskal Herriatik kanpo Salamankan ere izan gara gregoriano emanaldi bat eskaintzen.

• **Aretxabaletan, noiz hasi zineten gregorianoa lantzen?**

14 urte pasa dira gregorianoa lantzen hasi ginenetik. Nik 1981. urtean abesbatza hartu nuenean ekin eta gaur arte lanean aritu gara. Urtero Silosera joaten ginen gehiago ikasteko asmoz. Tolosako jardunaldietan ere askotan izan gara, bertan guztira sei domina lortu ditugu, hauetatik bi urrezkoak izan direlarik. Gregorianoan maila ona lortu dugu.

• **Beraz, urte askotako lanaren ordaina diskaren grabaketarekin jaso duzue:**

Alde batetik bai, urte asko daramagu Gregorianoa lantzen. Ismael Fernandez de la Cuestak deitu gintuenean bazekien talde kontzagrataua ginela. Guk Tolosan lehenengo aldiz urrezko domina

irabazi genuenean bera, epaimahaiko partaidea izan zen. Hau izan da gugana jotzerako orduan izan duen erreferentziarik nagusia. Nire ustez, 1981. urtean landatu eta 14 urtetan zehar landutako haziak eman du bere fruitua.

• **Grabaketa honetan, zein izan da Ismael Fernandez de la Cuestaren papera?**

Bueno. Ismael, musikologia eta gregoriano katedraduna da Madrillgo kontzerbatorioan. Berak orain dela 2 urte, hain famatu bihurtu zen Siloseko monjeen gregoriano diskoan parte hartu zuen. Gure kasuan, P.B.S. (Public Broadcasting Service) Estatu Batuetako telebista publikoak berarengana jo zuen. Ismaelek zuzendari lana egin du, lan garrantzitsua, baina guk alde aurretik gregorianoan lan handia eginda geneukan.

• **Badirudi azken urteetan Gregoriano musikak gorakada**



**jasan duela.**

Bai, nolabaiteko gorakada egon da, baina ez talde gehiago sortu direlako, jendearen ezagupen eta gregorianoarenganako jarraipena haunditu delako. Nik uste dut Siloseko monjeeen gregoriano diskoak zerikusi haundia izan duela.

**• Euskal Herrian badago Gregorianoan tradizioirik?**

Ez, oso gutxi. Euskal Herrian gregorianoa lantzen duten hiru talde daude. Gasteizen bat, Donostian (Donosti Eraski) eta gu. Egia esan, elizak oso gutxi landu du gregorianoa.

**• Zer da Gregoriano musikak esan nahi duena?**

Hitz gutxitan, Gregorianoa, Kristau liturgiaren musika da. Aspaldian kristauak beraien liturgietan abesteko modu desberdinak zituzten, baina San Gregorio Magno Aita Santua etorri eta enziklika baten bidez Gregorianoa eliza katolikoaren musika ofizial bihurtu zuen.

Lan honetan Angel Barandiaran zuzendariaz gain, Iñigo Aizpurua; Imanol Aizpurua; Aitor Aranzabal; Txomin Arana; Iñaki Ortiz de Zarate; Luis Errasti; Pedro Urzelai; Jose Cruz Urzelai; Iñaki Agirre; Rikardo Garro; Jokin Bengoa; Alejandro urzelai; Jabier Markos; Karmelo Olabe; Miguel Elorza; Alberto Uribetxebarria eta Mariatxen aritu dira.

**• Zein helbururekin grabatu duzue diska hau?**

Gure helburua diskoa mundu



Aretxabaletako gregoriano taldea, San Isidoro Colegiatako klaustroan, Leonen.

***“Ziur nago oso disko garrantzitsua izango dela. Gainera aipagarria da Aretxabaleta moduko herri batek horrelako proiektu batean parte hartzea”***

osora zabaltzea da, Gregorianoari bultzada bat ematea eta bide batez ezagunago izaten laguntzea.

**• Noiz merkaturatuko da?**

Lanzamendua gabonetan egingo da. Estatu Batuetan lehenengo, bertako telebista publikoak bultzatu duelako, PBSk hain zuzen ere. Ondoren TVEk bultzatuta espainiar estatuan merkaturatuko da.

**• Non grabatu duzue?**

Diskoa Aguilar de Campon grabatu dugu, bertako Santa Mariako monastegian. Lan gogorra izan zen, ordu gutxitan lan asko egin genuen eta.

**• Beraz, ez da estudio batetan grabatua izan.**

Ez, monastegia sonoridade eta soinu aldetik askoz egokiagoa zen, estudio batean aurkitzen ez genuena bertan aurkitu dugu. Arazorik haundienak kanpoko zaratekin izan genituen.

**• Bideo bat ere grabatu duzue.**

Bai, Leoneko San Isidoro Colegiata gotikoan grabatu genuen. Leoneko irudiez gain, geu agertzen garenak, Burgos, Soria eta Toledoko imaginak ere grabatu zituzten. Bideoaren grabaketan TVEak parte hartu du.


**• Diskoa grabatu ondoren promoziorik egiteko asmorik ba al daukazue?**

Bai, datorren urteko Aste Santuetan Estatu Batuetara joatekotan gara, eta bertan Washinton, New York, Boston eta Philadelphia-tik gira bat egingo dugu.

1996ko gabonetan, berriz ere Estatu Batuetara joatekotan gara eta baita 1997. urteko abuztuan ere.

*Gorka Etxabe*





# Behobia-Donostia lasterketan atxabaltarren sailkapena:

<p><b>Atxabaltatik korrikalari asko animatu ziren azaroaren 12an egin zen Behobia-Donostia lasterketarako. 35 lagunek parte hartu zuten, hoiien artean bi emakume. Aipatzekoa da Ramon Jausorok egin zuen lasterketa bikaina, 14. postuan sartu zen, ordu bete 3 minutu eta 50 segundu behar izan zituen ibilbidea egiteko.</b></p>	<p>14 Ramon Jausoro.....1:3:50 160 Kepa Urrea.....1:13:15 457 Joseba Gonzalez.....1:18:57 646 Luis Larrañaga.....1:21:08 794 Iosu Lanzos.....1:22:35 801 Aitor Atxa.....1:22:39 802 David Perez.....1:22:40 859 Luis Mari Azkargorta.....1:23:07 918 Jesus Lombide.....1:23:38 1199 Mikel Uribebarria.....1:25:42 1488 Oier Etxebarria.....1:27:21 1856 Jorge Oiarbide.....1:29:25 2019 Beñat Markaide.....1:30:20 2027 Ricardo Mateo.....1:30:30 2566 Aitor Iurre.....1:33:01 2569 Felis Beltran de Heredia 1:33:02 2609 Sergio Romero.....1:33:11 2669 Fernando Uribesalgo.....1:33:32</p>	<p>3622 Felix Corres.....1:37:46 4092 Tomas Rivera.....1:39:46 4146 Jon Iregi.....1:39:57 4209 Iñaki Etxebarria.....1:40:12 4219 Unai Beitia.....1:40:12 4220 Ramon Eraña.....1:40:12 4294 John Nelson.....1:40:31 4609 Javier Mar.....1:41:53 4979 Ramon Barrutia.....1:43:41 5124 Angel Mari Etxabe.....1:44:18 5381 Miguel Perez.....1:45:35 5530 Oier Aranzabal.....1:46:17 6109 Patxi Arbonies.....1:49:09 6311 Eugenio Paul de Frutos..1:50:10 6381 Floren Elortondo.....1:50:31 6481 Maite Mateo.....1:51:03 6745 Amaia Gastañaga.....1:53:00</p>
---	--	--

## AMIETS TABERNA

Iparagirre, 4  
Tfnoa: 79 01 29  
Aretxabaleta

## ENBOR

*Eloy Borgas Iglesias*  
• Sukalde muntatzailea  
• Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta  
Tfno-Faxa: 79 02 51

## INDUSTRIALDEA MEDIKU-ZENTROA


Luis Orruño  
Medikua  
Zaraita  
Masaiak eta osteopatia

Industrialdea  
Pabelloi F-O b  
79 06 82  
ARETXABAleta

## Hortz klinika

Imanol Arrazola  
Otxoa  
Mediku-Odontologoa  
Col. 405


Otalora 18 - 1.º D  
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)  
Tf: 79 93 55



## ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola, 1 8. pabiloia  
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30



**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

ARETXABAleta

Industrialdea F-0-4  
Tfnoa: 791844  
Faxa: 792941

## IMANOL JANARI DENDA

Harategia  
BEREZIKI Urdaitegia  
Fruitategia  
Gorbea Kalea ☎ 79 05 83 ARETXABAleta

## LEIBAR ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79  
ARETXABAleta



# Jose San Migel, pelotarekiko afizioa indartzen

Gure herrian, pelotarekiko zaletasun haundia egon da beti. Hala ta be, azken urteotan beste kirol batzutarako joera haundiagoa izan da.

Jose San Migelek orain dela sei urte ekin zion neska-mutilak pelotan entrenatzeari. Ordutik Iturrigorri frontoian mugimendu gehiago dago.



Goian ezkerretik eskumara: Jonas Nuñez, Gorka Iturbe, Unai Uriarte, Aitor Alzola, Ibon Bartolome, Jose San Migel (entrenatzailea), Aitor Apraiz, Asier Eraña, Iosu Lasagabaster, Ion Lete. Eserita, ezkerretik eskumara: Oihana Mata, Martin Antxia, Jon Altube, Eñaut Kortabarria, Kepa Ibabe, Gorka Etxabe, Andoni Altube, Lartaun Iturbe, Mikel Iturri, Aritz Kortabarria, Aritz Igartua, Aitor Bolinaga.

## • Zelan hasi zinen pelotan entrenatzen?

Orain dela sei urte hasi nintzen. Orduan Mikel Uribetxebarria ibiltzen zen entrenatzen eta honek utzi egin zuen eta neu hasi nintzen. Niri, pelota betidanik gustatu izan zait. Hasiera baten, 5 urtetarako konpromezua hartu nuen neure buruarekin. Dagoeneko bost urteak pasatu dira baina nire lekua hartzeko inor ez dagoenez jarraitu egin dut.

## • Zenbat neska-mutiko entrenatzen dituzu?

30 neska-mutiko dira guztira, 8 urtetatik hasi eta 16 urtera bitartekoak. Txikienekin, 8tik 12ra urte bitartekoekin astelehen eta eguaztenetan ibiltzen naiz

eta nagusiagoekin barriz, martizen eta eguenetan.

## • Denbora asko ematen diozu pelotari orduan.

Bai, entrenamenduez gain, astebukaeretan partiduak ere jokatzen ditugu. Herriko txapeketak antolatu behar izaten ditut eta uste baino lan gehiago ematen du azkenean.

## • Zein txapelketetan parte hartzen duzue?

Txapelketa askotan parte hartzen dugu. Urte osoan zehar izaten dira, irailan hasi eta urrirarte. Hoiere artean, herriko arteko torneoan, "Liga Vasca" Deba Garaiko promozio

txapelketa, Deba Harroko txapelketa, Zaramaga, Santa Lucia, Cafe Baque, Elgetako txapelketa eta eskolartekoan.

## • Pelotaren inguruan zer botatzen duzu faltan?

Laguntasuna botatzen dut faltan. Askotan ezin izaten dut partidu guztietara joan eta neska-mutilen gurasoak joaten dira orduan. Pelotan ez dago futbolerako dagoen amorrua eta laguntasuna ere txikiagoa da hortaz.

Bestalde, ekipamendu aldetik, Iturrigorri frontoiaren pozizioa ez da baxterea ona. "Leku onean

egin zen baina txarto jaio zen". Alde bat zabalik izatean, udazkenean, hostoak sartzen dira eta dena zikintzen da. Eurria eta haize zakarra dabilenean, eurria barrura sartzen da. Udan barrez, eguzkiak begietan jotzen du jokatzen dabilena. Neguan, hotz haundia egiten du entrenatzeko eta eskuak berotzea kosta egiten da.

## • Gazteen artean badute eragina beste kirolak?

Bai, gure inguruan futbolarik indar haundia du. Iaz hiruk utzi zuten pelota eta futbolaria pasatu ziren. Pelota oso kirol gogorra da, eskuak mindu egiten dira. Pelotan aritzeko eskuturra ona behar da eta gorputzean indarra izan. Gauza bat ona du pelotak, lau lagun nahikoa direla pelotan egiteko.

## • Aurrera begira ze asmo dituzu?

Hasiera batean bost urtetarako konpromezua hartu nuen, baina beste inor ez da pelotan entrenatzen animatzen eta momentuz jarraitu egingo dut. Beste norbait aurkitu ezker, laguntzaile moduan gustorago ibiliko nintzateke.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

Bizkaia,1 - Tfnoa: 79 08 07 Aretxabaleta

ALTZARIAK

DISEINUA

APAINKETA

**Dorleta**  
**Taberna**

Loramendi, 8  
Tfnoa: 79 94 15  
**Aretxabaleta**

**MIKELOS**

Moda  
Guztia Zuretzat

Iparagarre 3 ☎ 79 36 67  
**ARETXABAETA**





**Mikel Cubillo atxabaltarraren lana aurkezten dugu gaurko honetan. Zazpi urte besterik ez ditu Mikelek eta Almenen 2. mailan dago. Familia gaia aztertzen ari dira eskolan eta gaiarekin lotuta Mikelek bere familiari buruzko deskribapena egin du eta baita familiaren marrakzi polit bat ere.**




Mikel Cubillo

Almen Azaroaren 15 a Asteazkena

Nere familia

Gure familian lau gara. Nere arrebak hamabost urte ditu. Nik zazpi urte ditut. Nire aitak Bixente du izena. Bixente nire aita oso ona da. Nire amak Maribel du izena. Maribelek kotxe polit bat erosi dit. Nere arreba oso ona da. Arratsaldetan bokadiloa ematen dit eta arkatzak ematen dizkit, baita borragomak ere, gauza asko ematen dit. Nere amak gaur afaltzeko aharri gustokoena egin behar du.

Mikel Cubillo



**IBARRA**

**ESTANKOA**

Tabakoa eta ikasmateriala  
Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

**MEMESA S.L.**

*Industriaren alde*

Santa Kurtz, 25-27  
Tfnoa: 77 11 75  
ARETXABALETA

**“HERRASTI”  
AKEITA**



Aralar kalea, 7  
Tfnoa: 79 32 83

**BITXITEGIA**

**MIREN & ZURIÑE  
BITXIEN DISEINUA**

BITXIEN-KONPONKETA  
Otalora kalea  
Eliza aurrealdean  
Tfnoa: 77 13 57

**ARBULO  
HARATEGIA**

Santa Kurtz, 5  
Tfnoa: 79 02 24  
ARETXABALETA

**SAGASTA**

**ELEKTRIZITATEA**

Elektrogailuak  
Elektra-instalakuntzak  
Otalora, 14  
Tfnoa: 79 16 10

**MARI-MERKE**

Jostailuak eta gabonetako gauzak (bolak, pinuak, e.a.)  
Lezama Merkatal Zentrua  
ARETXABALETA



**AZKENA  
TABERNA**

Solohaundi, 8 Tfnoa: 79 74 57





Aretxabaletako abesbatzak indar haundia izan du beti. Bere sorreran ere, talde sendoa eta indartsua zen gure herrikoa. 50 neskek osatzen zuten, eta zuzendaria Maria Luisa Perea de Arrue zen, zuzendari gogorra baina oso ona. "Andra Mari korua" deitzen zitzaion eta neskek bakarrik osatzen zuten, orduan gizonik ez zegoen taldean.

Andra Mari koruak elizan abesten zuen gehienbat. Hala ta be, hainbat urtenaldi ere egin zituzten eta ondo abesten zutela erakutsi ere bai. 1951. urtean esaterako, Donostiako Principe Antzokian abestu zuten eta Gipuzkoa mailako lehenengo saria irabazi. Gregoriano pieza bat, derrigorra zena eta gero gai librean euskal poutpourri bat abestu zuten. Berri hau egunkarietan ere agertu zen.

1953. urtean, Madrilera joan ziren. Estatuko autonomia bakoitzak bere erreprezentazioa eraman behar zuen eta Euskal Herritik Aretxabaletako Andra Mari korua joan zen. 21 probintzi aurkeztu ziren guztira, eta talde bakoitza bere herriko jantzi erregionalez jantzita joan behar zen. Hemen ere pieza gregorianoa abestea derrigorra zen eta hortik aparte gura zuenak pieza librea ere kantatzen zuen. Berriz ere, gure herriko abesbatzak lehen saria eskuratu zuen, estatu mailako lehen saria Euskal Herrira ekarri.

Gerora zuzendariak abesbatza utzi zuenean, abesbatza geldituta egon zen. Urte batzutara Juan Luis Izagirre jarri zen abesbatzeko zuzendari eta berriz ere abesbatzak bere indarra berreskuratu zuen. Angel Barandiaran organista lanetan aritzen zen orduan baina Juan Luis hil zenean, bera jarri zen zuzendari.

Goiko argazkia, Donostiako Principe Antzokian aterata dago, 1951. urtean.

Argazkian lehenengo iladan eta ezkerretik eskumara: **Cecilia Olabe, Dunixe Zuazabeitia, M<sup>a</sup> Kristina Zuazabeitia, Benita Zubizarreta, Miren Urreta, M<sup>a</sup> Sol Altuna, Dominga Oianguren, Klotilde Zubizarreta, Fermina Gabilondo, Belen Madinabeitia, Ana Maria Etxabe, Kontxita Peña, Konsuelo Olabe.**

Bigarren iladan eta ezkerretik eskumara: **M<sup>a</sup> Karmen Unanue, Mercedes Bengoa, Eulalia Zuazabeitia, Miren Zuazabeitia, Milagros Urreta, M<sup>a</sup> Josefa Uribetxebarria, Miren Igartua, Ana Maria Ibarzabal, Josune Lopez de Armentia, Francisca San Migel, Arantxa Uribetxebarria, Arantxa Zabala, Txaro Urreta, Benedikta Bengoa, Angelita Ibarzabal, Maria Jesus Erce.**

Zuzendaria: **M<sup>a</sup> Luisa Perea de Arrue.**



# Saltsa ederra Ibarra



M.J. Aretxaga

Oingo egunetan hego haize beroa dabil eta UDakoek etxean jokatu zuten azken partiduan ederki berotuta joan zena arbitroa izan zen. Honek, UDatik Aitor Zuñiga eta Iker Agirre kalera bota zituen eta baita beste ekipoko bat ere. (Beste garai batean izan balitz arbitroak errekan bukatuko zuen). Astindu hau dela eta UDari 25.000 pezetako eta partidu bateko zigorra jarri diote. Hau dela eta hurrengo partidua Oñatin jokatuko dute. Eskerrak direktibakoak ondo portatu zirena, bestela auskalo ze gertatuko zen.

Partiduan gertatu zena ez da egunerokoa, ezta Ezkutun joan den eguakotxean gertatu zena ere. ATBrako anuntzio bat grabatzeko asmoaz jendeak eskatzen zuen edarien doblea ateratzen zuten, berdina kobratuz. Ezkutu jendez gainezka egon zen, gehixenak

mondrauetarrak.

Bapo edan eta jan zutenak, Murrukixokoak izan ziren. Albisturren sekulako babajana egin zuten, Lizarrustitik Ametzetara trabesia egin ondoren. Beti moduan bidea topatzea kostatu zitzairen, azkenean izerdi ederrak bota eta gero arratsaldeko 4retan jarri ziren mahaian. Murrukixokin berandu bai baina seguru.

Beste urteera mota bat Kurtzebarri eskolako Imanol Aginagalde, Mariasun Gutierrez, Guren Gonzalez eta Eli Arenaza irakasleak egin behar dute Bilbo aldera. Bertan, murgiltze ereduari buruzko metologiaren azalpena emango diete hango irakasleei.

Honez gain, Lurdes Etxebarria Sitgesera joango da hizkuntzaren didaktikaren inguruko metodologiari buruzko ponentzia bat aurkeztera.

Bidaia hauek ondo daude baina ni joatekotan Iñaki San Migel eta Juanjo Perezekin batera Txilera joango nintzateke. Bertan uda den ezkerro gustora ibiliko dira bizikletan biak. Aber pintxazo asko izaten ez duten eta bueltarako zerbait ekartzen didaten opari moduan.

Badakituzue, hemendik aurrera kontuz ibili Ibarra aldien.

## ARETXAZOKA

- Euskeraz, ingelesez, gazteleraz ETB hizkuntzatatz eta ipuin pertsonalizatuak idazten dira. Kontaktua: Miguel 79 47 54

### LANA

- 1.go mailatik 8. mailara arteko klase partikularrak emango nituzke. 79 24 19
- 20 eta 33 urtetako bi neska, umeak edo hiru-garren adinekoak zaintzeko prest daude. Telefonoa 79 96 24 da eta Txaro edo Begoñagatik galdetu.

- Klase partikularrak emango nituzke, 2. REMerarte. Telefonoa: 79 27 14.

### ETXEBIZITZA

- Bergaran 50 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai. Berritua eta oso prezio interesgarrian. Telefonoa 71 53 49. Deitu gaueko 8etatik 10etara bitartean.
- 82 m<sup>2</sup>-ko lokala salgai dago. Hiru horma kale-runtza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Loramendi 10 kalean dago. Telefonoa: 79 01 17

- Aretxabaletako edo inguruko herri batetan logela indibidual baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko baimenarekin. Deitu 35 13 28 edo 51 78 44 telefonora eta Jabierren-gatik galdetu.

- Pisu bat salgai dago Eskoriatzan. Berritua eta altzariz hornitua dago. Gaez deitu ondorengo telefonora: 71 40 47.


- Gasteizen, unibertsitaterik gertu, bi ikaslerendako pentsio osoa eskaintzen da. Deitu (945) 26 73 28 telefonora. (Patxi).

Orrialde hone-tako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak e.a.) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.



Orencio Espeso

“Oinetakoak hankan gustora izatea oso garrantzitsua da”



Arrasaten lantegi batean lanean ari zela lana bukatu zitaion eta zapata denda jarri zuen orduan Orencio Espesok Aretxabaletan. Oinetakoak saltzeaz gain, bestelako lanak ere egiten ditu, zapatak konpondu, fraka eta poltsei kremaileak jarri, e.a.

- **Nongoa zara?**  
Leongoa
- **Noiz etorri zinen Aretxabaletara?**  
1969. urtean.
- **Zelan jarri zenuen oinetako denda?**  
Lan honetan esperientzia apur bat banuen eta baita emazteak ere eta lan barik gelditu nintzenez oinetako denda jarri genuen.
- **Gustoko lana duzu?**  
Bai, gustoko dut.
- **Oinetakoak saltzeaz gain ze lan egiten dituzue?**  
Oinetakoak konpontzeaz gain, txamarretako kremaileak jarri eta larruarekin zerikusia duten jantziak eta materialak moztu, estutu, e.a. egiten ditugu.
- **Non hartu zenuen lan hauek egiteko esperientzia?**  
Arrasaten zapatari batekin ikasten ibili nintzen denbora batean eta gero neure kasa ikasten joan naiz.
- **Atxabaltarrok zelako oinetakoak erabiltzen ditugu normalean?**  
Jende nagusiak zapatak erabiltzen ditu normalean. Gazteek, mutilak bereziki, botak edo zapatilak. Neskek mutilek baino gehiago jaxten dituzte zapatak.
- **Oinetako batek zelakoa izan behar du ona izateko?**  
Azpia gomazkoa izan behar du eta ez plastikozkoa eta gero larru onekoa izan.
- **Zerk igotzen du zapata baten prezioan?**  
Eskulanak. Materialak, plastikozkoa edo larruzkoa izateak ez du horrenbesteko eragina prezioan.
- **Gazteetan ze numero da gehien gastatzen dena?**  
Mutiletan 42 eta 43a eta nesketan 37 eta 38a.
- **Nondik ekartzen dituzue zapatak?**  
Elcheko eta Arnedoko (Errioxa) lantegietatik eta baita Donostiko eta Mirandako almagazetatik.
- **Zapataria ez bazina izan non lan egitea gustatuko litzaizuke?**  
Lantegi batean baina fundizioan ez.
- **Zure jaioterriko, hau da Leoneko, ze botatzen duzu faltan?**  
Familia.

Beheko laukian Aretxabaletako zazpi kaleren izenak aurkitu beharko dituzu:

E	N	L	I	T	A	R	H	P	I	O	K
R	Z	N	S	D	Z	R	J	S	P	U	G
R	X	T	K	E	N	L	O	K	A	O	O
K	A	L	R	T	A	E	P	L	R	K	R
A	Z	E	B	U	D	A	M	B	A	R	A
E	K	I	S	E	K	N	E	A	M	T	R
L	T	I	B	A	T	A	Z	I	R	N	O
B	T	R	E	L	A	R	T	E	G	O	L
A	F	I	A	D	O	U	B	N	U	A	L
R	A	L	Z	T	M	D	L	A	A	K	D
R	N	E	K	T	I	S	A	R	A	S	O
D	U	R	A	O	K	M	E	N	D	I	T

GURUTZEGRAMA

Zaborak uztandirun tokia Nagusikeria	Zeten zikiratua Nahasketa	Ekonomian adituak Bat	Zabakha Animalien larru- patza	1. aplare mota Katak
Baiezta- tzeko Urtirik		Ezra- lekuak India		Tona Tira- patata
Jainko egipziarra Amore emari	Jacan Isiak			
Aterio Antibio mota		Masurkio Lehe- nengoa	Artseniko Europako biztanlea	
Iodoa Traketa	Abarrak Fereku	Ipar, lau Dago	Mokua Ez eme	Kalzio oxido
Joan den urtekoa	Bokal bikoitza Arazo	(Neol.) Albiste Zango atala	Desira Azkenekoa	
Utuk! Odol xurgatzaile		Dardara 499	Sarrera Alfabeto- izurako erakundea	Bizkaiko herria
Indarez			Adi! Röntgen	Bokala

Oharra: Erantzunak hurrengo Aretxagazetan izango dituzue



**BERGARA**



**Azaroak 24**

**ERNESTO IZATEAREN GARRANTZIA ANTZEZKIZUNA**

Maskarada antzerki taldeak "Ernesto izatearen garrantzia" obraren antzezkizuna eskainiko du. Novedades Aretoan izango da gaueko 10,30etan. Sarrera 500 pezeta.

**Azaroak 25 zapatua**

**LEGAZPIA ABESBATZAREN KONTZERTUA**

Legazpia abesbatzak kontzertua emango du Santa Marinako elizan arratsaldeko 8retan. Dohainik izango da.

**Abenduak 2 zapatua**

**DONOSTIAKO ESKOLA DANTZA TALDEAREN IKUSKIZUNA**

Donostiako ESKOLA dantza taldeak eskainitako ikuskizuna. Udal pilotalekuan izango da gaueko 10,30etan. Sarrera 500 pezeta.

**Azaroak 25-abenduak 3**

**SEILU ETA DIRU BILDUMA ZALEEN ERAKUSKETA**

Bergarako seilu eta diru bildumazaleen elkarteak egindako lanen azalpena ikusgai egongo da kultur etxean.

**Komiki lehiaketa**

Bergarako Jardun Elkartek IV. komiki lehiaketa antolatu du. Lehiaketa honetan OHOk 6. mailatik gorako edozeinek parte hartu dezake. Lan guztiak argitaratu gabeak eta euskeraz idatziak izan beharko dute. Euskeraren aberastasuna, zuzentasuna, argumentoa, marrazkien kalitatea eta originaltasuna kontutan hartuko dira. Lanak aurkezteko azken epea abenduaren 14a da. Informazio zehatzagoa gura izan ezkeru deltu, 76 08 19 telefonora.

**ARRASATE**



**Azaroak 30**

**"UNA MIRADA PERSONALISTA Y COMUNITARIA A LAS COOPERATIVAS DESDE EL MUNDO DE LOS POBRES" HITZALDIA**

Arratsaldeko 6,30etan izango da Arrasateko Eskola Politeknikoan. **Gizabidea Fundazioak Don Jose Mariaren omenez** antolatu du. **Carlos Diaz** izango da hizlaria. Madrilera unibertsitateko irakaslea da, filosofian doktoratua.

**"CARO DIARIO" ZINEA**

Amaia antzokian izango da gaueko 9,30etan. Sarrera, 350 pezeta. Gazte txartelarekin 300 pezeta.

**Azaroak 27-abenduak 3**

**ERAKUSKETA**

"Bizkaiko Golkoaren itsasbazterra" erakusketa. Monterron kultur etxean egunero 6retatik 8retara.

**ESKORATZA**



**Euskararen astea**  
Axtroki taldeak antolatuta

**Azaroak 25**

**TAKOLO, PIRRUTX ETA PORROTX PAILAZOAK**

Takolo, Pirrutex eta Porrotx pailazoekin **HAURRENTZAKO JAIALDIA** izango da arratsaldeko 5etan Udal pilotalekuan.

**BERTSO AFARIA**

**Unai Iturriaga** eta **Mañukortarekin** bertso afaria gaueko 9etan Toki-Alai tabernan. Sarrerak salgai, Mirentxu, Aldatz eta Arrano tabernetan.

**Azaroak 26 domeka**

**ERAKUSKETA**

**Perretxikuak, sendabelarrak, fosilak eta mineralen** erakusketa egongo da Herriko Plazan goizeko 10etatik aurrera. Eguerdiko ordu 1,15etan **Musika Eskolako Bandaren kontzertua eta pasakailea** ikusi ahal izango dira.

**ZARAIA TABERNA**  
Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan  
**MANTEKA ANAIK**

*Okindegia - Goxotegia  
Panaderia - Pasteleria*

**Aretxabaleta**  
Militaria, 1 - Tfno. 77 00 81  
Aretxabaleta  
Obrador Propio

**MENDIOLA ERRETEGIA**  
Bazkari eta afariak  
**Astlehenetan itxita**  
Tfnoa: 71 43 45  
**ESKORATZA**



ARETXABALETA



**Azaroak 26 domeka**

**ZARAIA MENDI TALDEA**

Zaraia M. T. Murumendira egingo du urteera.

**UDAKO NESKAK-INTXAURRONGO**

Ibarra futbol zelaian izango da goizeko 11,30etan.

**BIGARREN JUBENILA-ALMEN**

Ibarra futbol zelaian izango da arratsaldeko 4retan.

**Abenduak 3 domeka**

**ARETXABALETAKO BANDAREN KALEJIRA ETA KONTZERTUA**

Domekan, eguerdiko 11,30etan Aretxabaletako bandak **kalejira** eskainiko du eta ondoren **kontzertua**.

**ZARAIA MENDI TALDEA**

Zaraia M. T. ak **Aldaiara** egingo du urteera.

**Abenduak 16 zapatua**

**SANTA LUCIA JAIK GALARTZA AUZOAN**

Arratsaldeko 6retan meza egongo da. Ondoren luntxa auzokoentzako.

**Abenduak 17 domeka**

**SANTA LUCIA JAIK GALARTZA AUZOAN**

Goizeko 11,30etan kanpai jotzea eta etxaflero jaurtiketa. 12,30etan meza eta ondoren luntxa. 1,30etan trikitilariak.

**Abraham Olanori ongietorria egitera joateko deialdia**



Dorletako Amari munduko txapelketan irabazitako mailota eskainiko dio Abraham Olanok

Datorren larunbatean, azaroak 25ean Abraham Olano, munduko txapeladuna Leintz Gatzagara etorriko da. Bertan, munduko txapelketan irabazitako mailota eskainiko dio Dorletako Amari (Txirrindularien zaindaria). Gatzatik Dorletara bitartean pasiloa egingo zaio. Hori dela eta, zonako txirrindu afizionatu guztioi bertara joateko deialdia egiten zaizue, pasilo hori egiten laguntzeko. Txirrindulari guztiok batera joateko, Aretxabaletan Vadezate taberna ondoan 9,30etan elkartuko dira.

BEHARREZKO TELEFONOAK



**Aretxabaleta**

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 79 10 52
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkarteak 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murruxiko M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99
- Ludoteka 79 05 81
- Musika Eskola 79 36 50
- Pausoka 77 03 77
- Ortzadar 79 01 84

**Udaltzaingoa**

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 76 14 69
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

**Denetarik**

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdia (Arrasate) 79 13 57
- SOS Deiak 088

**CONSUM EROSKI**

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8  
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g  
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA



Basabe Poligonoa A-15  
☎ 79 34 28

ARETXABALETA


ITURGINTZA



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87



# IÑURRATEGI ANAIAK eta MUGARRI, ezinezkoa erraza egiteko gaitasuna



*Mondeo* berria  
bere kategorian  
garaile